

Dolarerako umotuta

SAGARDOTARAKO SAGAR MOTEN AURKÉZPENA. Gipuzkoako Foru Aldundiko agintari eta arduradunak Hondarribiko Zubieta etxaldeko sagasti ederrean elkartu ziren atzo

ARANTXA IRAOLA - DONOSTIA

Mantoni, Moko, Mera-bi, Urdin, Txalaka, Gazi gorri, Mozoloa, Urtebi handia... sagar-landare motak dira guztiak; garratzak, gazi-garratzak eta gaziak. Denetik. Sagardotarako erabiltzen dira, eta atzo, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskutik, 2005-2006 kanpainarako eskura daitezkeen landareak aurkeztu zituzten Hondarribiko Zubieta etxaldean, Gipuzkoan.

Rafael Uribarren Landa Ingurunearen Garapenerako diputatua han zen, eta Iñaki Larrañaga sagar-landareetako teknikaria alboan zuen. Gustura mintzatu zen aditua: «Aurtengo uzta ez da izan iazkoa bezain ona, baina behar adinako neurria hartu dute sagarrek, eta azukrea ere bai... Azukrea eguzkiaren araberakoa izaten da, eta aurtun egun eguzkitsua izan dira».

Segidan, Zubieta etxaldeko sagasti ederrean bertan sagarrak nola biltzen dituzten erakutsi zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko langileek. «Sistema tradizionalan makila batekin botatzen dira sagarrak lurre-ra... Hondarribi inguru honetan, kostan, banbu makilak erabiltzen dira», azaldu zuen Iñaki Larrañagak. Egun, sistema modernoagoa ere badute eskura: «Dar-dar egiten duten makina batzuk erabiltzen ditugu».

Arbolatik behera

Adarretan makinarekin dardara eragin, eta bizkor erortzen dira sagarrak. Horren erakus-

taldia egin zuten atzo Zubieta etxaldean. «Olibak arbolatik botatzeko erabili izan ohi dituzte gailu hauek, eta orain gu probatzen hasi gara».

Lurretik sagarrak biltzeko makinak ere badituzte gaur egun eskura. Atzo, nolanahi ere, bilketa tradizionala egin zuten: kizkiarekin jaso zituzten sagarrak. Gerria makurtu, eta muturrean burdinazko kako bat duen makilarekin bildu zituzten fruituak, handik otarreetan bildu zituzten, eta handik zakuetan, dolarerako bidean.

Sariak botilako sagardorik onenentzat

Atzoko ekitaldia Gipuzkoako Foru Aldundiaren IV. Sagardo Lehiaketako sariak banatzeko ere baliatu zuten. Botilako sagardoa saritzeko lehiaketa da hori, eta Rafael Uribarren diputatuak eman zituen sariak. Lehenengoa Gurutzeta sagardotegiak jaso zuen, bigarrena Urdairak eta hirugarrena Begiristainek.

Jose Angel Goñik, Patxi Azkonobietak eta Iñaki Begiristainek jaso zituzten sariak, hurrenez hurren. Rafael Uribarrenek lanean jarraitzeko deia egin zien. Botilako sagardoak etorkizun oparoa duela nabarmendu zuen, eta jaramon egin behar zaiola. Produktuaren komertzializazioa eta kalitatea ondo zaindu behar direla esan zuen, eta «prestigioko» produktua izatea lortu behar dela.

Lehengaiak, sagarrak, prest daude. Umotuta daude sagardoa egiteko.



KIZKIAREKIN sagarrak nola biltzen diren azaltzeko, erakustaldi txikia egin zuten. GARI GARAIALDE / ARGIAZKI PRESS